

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## “Bajo Tierra – Lur Azpian” erakusketak Nafarroan gorpuak hobitik ateratzeko prozesu goiztiarra gogoratzen du

*Nafarroako Oroimenaren Institutuak antolatuta, erakusketa Iruñeko Planetarioan bisitatu ahal izango da, martxoaren 27tik maiatzaren 4ra arte*

Astelehena, 2019.eko martxoak 25

Asteazkenean, martxoaren 27an, “Bajo tierra – Lur azpian” erakusketa inauguratuko da. Erakusketa horren bidez, Nafarroako Gobernuak 1978 eta 1980 urte bitartean gorpuak hobitik ateratzeko egin zen prozesu goiztiarra gogoratu nahi du. Prozesu hori Nafarroako hainbat herritan eraman zen aurrera, bereziki Erriberan.

Senideek eta lagun minek bultzatuta, 1936ko kolpe militarrek eraildako ehunka pertsonen arrastoak berreskuratu zituzten, Nafarroa osoko hobi komunetan sakabanatuta zeudenak. Aurten, prozesu horren 40. urtemuga ospatzen da.

Nafarroako Gobernuak talde-ahalegin hori gogora ekarri nahi izan du, eta, horretarako, kudeaketa-batzordeen, hobitik ateratzeen, hiletan eta Nafarroako herri askotan dauden panteoi errepublikanoan lur emateen agiriak eta testigantza grafikoak biltzen dituen erakusketa antolatu du. Erakusketa Iruñeko Planetarioan bisitatu ahal izango da, martxoaren 27tik maiatzaren 4ra arte, ordutegi honetan: astearte eta asteazkenetan 10:00etatik 14:00etara; eta ostegun, ostiral eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:00etara. Igandeetan eta astelehenetan itxita egongo da.

Oroitzapen honetarako programatu den ekimenetako bat da erakusketa. Horrez gain daude Sartagudako Memoriaren Parkean irailaren 15ean egindako omenaldia, Torreroako hiltegiko oroimenezko ekitaldia (Sanjurjo Tertioko biktimen hobitik ateratzeak gogoratu) eta Nafarroako



Erakusketaren kartela.

hobitik ateratako gorpu guztien fitxekin argitaratuko den liburu-katalogoa.

### **Protagonistekin bisita**

Horrez gain, asteazkenean, martxoaren 27an, 18:00etan, mugimendu hartan parte hartu zuten eta erakusketarako testigantzak eta materialak erraztu dizkiguten hainbat pertsonen bisita publikoa jasoko dugu. Maiatzaren 6tik 12ra Berriozarren bisitatu ahal izango da erakusketa, eta, beranduago, Sartagudan, baina datak zehazteko dauden oraindik. Gero, tokiz aldatzen joango da Nafarroako geografian zehar.

Prozesuan parte hartu zuten pertsona askok gertatutakoaren testigantzak eman dizkigute eta haien familia-bildumetan gordetzen dituzten materialak digitalizatzeko utzi dizkigute, esaterako, oroigarriak, liburuxkak, agiriak, eta, bereziki, ekitaldi haien argazkiak. Beraz, haien eskuzabaltasunak egin du posible erakusketa hau. Hiritarrek urte hasieratik kontsulta dezakete material hori, Nafarroako Memoriaren Institutuaren Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubidean Zuzendaritza Naqusiaren [web-orrian](#).